

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KIROLAREN OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko martxoaren 15eko erabakiaren laburpena, zeinaren bitartez garapenean laguntzeko proiektuetarako 2024ko dirulaguntza-deialdia egiten baita

BDNS(Identif.): 750907.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/750907>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehena. Entitate eskatzaileak

UK atalean, 2023ko garapenerako lankidetzako dirulaguntza-deialdiko UK atalean (urteko kateatuak) dirulaguntza jaso duten entitateek bakarrik aurkeztu ahal izango dute eskabidea. Deialdi horietan bi proiektu onetsi zitzaizkienek bina eskabide aurkeztu ahal izango dituzte atal honetan.

US atalean, 2023ko garapenerako lankidetzako dirulaguntza-deialdiko US atalean (urteko kateatuak) dirulaguntza jaso duten entitateek bakarrik aurkeztu ahal izango dute eskabidea.

USA eta GE ataletan, deialdiko 1. eranskinean Vitoria-Gasteizen egoitza eta jarduna izateari dagokionez zehazten diren betebeharrak 5 betetzen dituzten gobernuz kanpoko eta irabazi-asmorik gabeko antolakunde edo entitateek bakarrik eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

PT atalean, deialdiko 1. eranskinean Vitoria-Gasteizen egoitza eta jarduna izateari dagokionez zehazten diren betebeharrak 4 betetzen dituzten gobernuz kanpoko eta irabazi-asmorik gabeko antolakunde edo entitateek bakarrik eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

US, UK edo GE ataletan dirulaguntza eskatzen duten entitateek ezingo dute eskabidea aurkeztu PT atalean.

Deialdiko atal guztietatik kanpo geratuko dira, berariaz, honako hauek:

- Enpresak eta irabazi-asmoa duten bestelako erakundeak.
- Arabako SEADen Lagunen Elkartea, lankidetzak-hitzarmena sinatu baitu Vitoria-Gasteizko Udalarekin.
- Estatuaren, autonomia-erkidegoko administrazioaren, foru-aldundien eta gainerako administrazio lokalen menpeko instituzio eta zerbitzuak.

Bigarrena. Helburua

Deialdiaren bidez lan hauetarako laguntza emango da:

- Garapenerako lankidetzaren arloko hiru urteko proiektuen urteko proiektu kateatuen jarraipena.
- Uraren eta saneamenduaren arloko garapenerako bi urteko lankidetzaproiektuak uraren eta saneamenduaren arloko urteko proiektu kateatuak bukatzea.
- Uraren eta saneamenduaren arloko bi urteko (2025-2026) garapenerako lankidetzaproiektuen alde aurreko aukeraketa egitea uraren eta saneamenduaren arloko urteko proiektu kateatuak, eta horiek formulatzeko egiteke dauden lan teknikoetan laguntzea.
- Giza eskubideen babesaren arloko garapenerako lankidetzako urteko proiektuak gauzatzea.
- Gehienez sei hilabeteko epean gauzatzekoak diren lankidetzaproiektuak txikiak.

Hirugarrena. Deialdiaren oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko martxoaren 15ean hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Guztira 1.740.000,00 euro bideratuko dira deialdi honetara, udal aurrekontuko 2450 2391 4 8200 Lankidetzarako dirulaguntzak partidaren kontura. Horretaz gain, 200.000,00 euro bideratuko dira Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA) udal enpresaren lankidetzarako aurrekontuaren kontura enpresaren administrazio-kontseiluak 2024ko otsailaren 8an onetsitako ekarpena. AMVISAREN ekarpena uraren eta saneamenduaren arloko proiektuen US atalera eta ez bestetara bideratuko da. Guztira, bada, 1.940.000,00 euro izango dira erabilgarri.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

UK ataleko proiektuak eta USA eta GE ataletako laburpen-dokumentuak aurkezteko: deialdiaren laburpena eta deialdiaren oinarriak ALHAOn sartu eta hurrengo 20 egun baliodunetara arte; US ataleko proiektuak eta GE ataleko behin betiko proiektuak aurkezteko: 2024ko irailaren 16ra arte; PT ataleko proiektuak aurkezteko: 2024ko ekainaren 10era arte.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko martxoaren 20an

*Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko
Administrazio Orokorreko teknikaria
MANUEL PÉREZ DE LAZARRAGA VILLANUEVA*